



## TALOGILEEI ESKER ONEZ

Suaren inguruan  
irina ta ura  
zapla-zapla artean  
taloak zerura  
txorixo, hirugihar  
tarteko modura  
lan estimagarria  
da zuen ardura  
bizipoza banatuz  
eskutik eskura.

---

*Mikel Mendizabal*

Josu Sarasola: Hegats-igeriketan munduko  
txapelketan parte hartu duen itsasondoa  
Zaharrak berri: Gipuzkoaren jatorria  
Hondakinak: Itsasondoko atez ateko bilketa





Beste urte bat amaitzeaz, eta gure Itsasondo 2.0 aldizkaria 19. alearekin dator. Nork pentsatuko zuen ibilbide luze hau egiteko gai izango ginelako? 20. alearen ospakizunetan pentsatzen hasi beharko dugu. Eta badirudi urte berria zaharraren krisi kantu bera-rekin etorriko zaigula. Horiek horrela, 2013. urterako aurrei-kusten diren zerga eta tasen nondik norakoak azalduko ditu-gu *Udaleko berriak* atalean. Elkarriketaren tartean, Josu Sarasola itsasondoar gazteak hegats igeriketako kirol ibilbi-dea eta beste hainbat kontu azalduko dizkigu. *Zaharrak berri* atalean, berriz, gipuzkoarren jatorriari buruz mintzatuko zaiz-kigu. Ibilbideari dagokionez, Itsasondoko eremuak alde bate-ra utzi, eta Mandubia-Garin-Astigarreta aldean ibiliko gara, inguruko paraje eta bideak ezagutuz, eta gure oinei eragi-nez. Horretaz aparte, azkenaldian izan ditugun kultur ekime-nen errepasoa egingo dugu: mendikleta trabesia, ziklo-krosa, patin ikastaroa, talo ikastaroa, talo festa, kantu afaria eta beste hainbat ekintza. Ez da ekitaldirik falta izan Itsasondon azkenaldian! Horrez gain, *Itsasondo ekinez egina* ekimenare-kin, Herri Plan berriaren lanketa egiten gabilta, herritarren parte-hartzearekin. Eta aurrera begira, agendan, Gabonak, Santa Ageda bezpera, Ijito Eguna, Emakumeen Eguna, esku-lan ikastaroa eta KORRIKA 18 ditugu. Ikusten da ate-joka datorren urtea indarrez datorrela. Guk ere asmo, ilusio, indar eta gogo onarekin has dezagun! ■



DOINUA: *Denbora, leku, zeru ta lurrak*

*Haurreskolako ume-jolasez  
alaitzen da eguerdia  
eta umeen eskubideez  
mintzo da mundo erdia,  
gipuzkoarren jatorriari  
aitortuz bere egia  
udaletxeko aurrekontuek  
garbi dute aurpegia  
eta lotsetan gorritu zaigu  
genero indarkeria.*

*Txalotuz Josu Sarasolaren  
igeriketa bikaina  
patinen modak zirrarrastzen du  
daraman marta labaina,  
Mandubi, Garin, Astigarreta  
pausoz pauso alajaina,  
ziklo krosaren lokatzak eta  
talo beroen usaina  
izango dira afaldu eta  
kantuz aritzeko baina.*

Sarrerako bertsoak

Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04-05. **Eskola:** Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna
- 06. **Haurreskola**
- 07-10. **Elkarriketa:** Josu Sarasola, hegats-igeriketa
- 11. **Kale inkesta:** Kultur ekintzetan zer?
- 12-13. **Zaharrak berri:** Gipuzkoaren jatorria
- 14. **Ongizatea:** Emakumeen aurkako indarkeria
- 15. **Gazteak:** Ilusio berriak
- 16-17. **Hondakinak:** Itsasondoko atez ateko bilketa
- 18-19. **Ibilbidea:** Mandubia-Mandubia
- 20. **Informatika:** ADSL edo Zuntz optikoa
- 21. **Aranzadi:** Itsasondoko Baratzeen I. Lehiaketa
- 22. **Ittuirri-txiki Guraso Elkartea**
- 23. **Ziklo-kros:** Itsasondoko XIII. Ziklo-krosa
- 24-26. **Hemeroteka**
- 27. **Lorezaintza eta sukaldaritza**
- 28. **Oharrak. Kultur agenda**

## Udaleko berriak

### Mozioak

Udalak azken hilabeteetan egindako batzarretan zenbait mozio onartu ditu. Jarraian horien berri ematen da:

Irailaren 18ko batzarrean, preso gaixoen eskubideen aldeko mozioa onartu da.

Azaroaren 8an, emakumeen indarkeriaren aurkako mozioa onartu da.

Azaroaren 28an, etxegabetzeen egoera larria salatzeko mozioa onar-tu da. Egun berean, Euskararen Egunaren alde Donostian abenduaren 3an egin beharreko manifestazioan parte hartzea eta herritarrei ere parte hartzera gonbidatzeko mozioa onartu da.

### Diru-laguntzak

Azken hilabeteetan jaso eta eskatutakoak hauek izan dira:

#### • Jasotakoak

- Udaletxeko beheko solairuan egiten ari diren obrak finantzatzeko 5.289 euroko laguntza eman du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak.
- 2012-2013 urteetan natura ingurunea zaintzeko ekintzak egiteko 30.138 euroko laguntza eman du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak
- Itsasondoko udal artxiboaren antolaketarako 7.080 euroko laguntza eman du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak.

#### • Eskatutakoak

- EVeri diru-laguntza eskatu zaio, udaletxean ezarritako berokuntza-sistema finantzatzeko.

Nagusia 7an Udalak duen etxebizitza errentan emateko espedientearen tramitazioa amaitu da. Eskaerak aurkezteko epearen barruan eskaera bakar bat izan zen, Ekaitz Arruti Mendizabalek aurkeztutakoa, eta bere eskaera onartua izan da.

### Ordenantza fiskalak

Azaroaren 8an egindako udal batzarrean, Udalak kobratzen dituen zergek eta tasek zer igoera izango dituzten erabaki da. Onartutako aldaketak jen-daurrean egon ziren, abenduaren 21era bitartean, egun hori barne. Epe horretan, herritarrek iradokizunak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izan-go dituzte.

Onartutako aldaketak:

KPI-Kontsumoaren gaineko prezioen igoera aplikatu da honako tasa haue-tan: hileta zerbitzuen eta udal hilerrian emakidak eman eta erabilera pri-batiboak ematearen tasa, establezimenduak irekitzeko tasak, estolderia zerbitzuko tasak, obra baimenaren tasak, ur hornidura tasa, ibi-badoen tasa eta Frontoiko argindar eta erabilera tasa.

Zabor bilketa tasan, 2012rako ez zen igoerarik onartu, zabor bilketako sistema berriaren aplikazioaren aurrean, bizilagunak egiten ari ziren esfor-tzua saritzeko. Datorren urterako, aldiz, Sasieta mankomunitateak aplika-tuko duen igoera kontuan hartuz, %5eko igoera aplikatuko du 2013. urterako, kontuan izanik partida hori Udalerako defizitariora dela urtero.

Ibilgailuen zirkulazio zergaren tarifetan KPlren igoera aplikatuko da, sal-buespen hauekin: 14 zaldi baino gehiago dituzten autoek %5,16 zalditik gorakoek %7,5 eta 20 zalditik gorakoek %10eko igoera izango dute.

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren tarifak KPlren igoera izango dute.

Horretaz aparte, uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauaren 1. artikuluan eza-rritako eran, ondasun higiezinaren gaineko zergan %50eko erreargua apli-katuko zaie etxebizitza erabilera duten eta subjektu pasiboaren edo hiruga-rrenen ohiko egoitza ez diren etxebizitzetara. Bileraren berean onartu dira errekar-gua aplikatzeaz kanpo geratuko diren kasuak.

Akordio horiei buruzko informazio gehiago udaletxean jaso ahal izan-go da.

|                                                      | 2003           | 2004           | 2005           | 2006           | 2007           | 2008           | 2009            | 2010           | 2011           | 2012<br>aurreikuspena |
|------------------------------------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|-----------------|----------------|----------------|-----------------------|
| ZERGA TASA SARRERAK                                  | 159.162        | 144.140        | 208.474        | 169.170        | 210.657        | 194.380        | 215.189         | 223.178        | 232.129        | 223.477               |
| ALDUNDIA Udal Foru Fondoa Finant.                    | 313.687        | 319.213        | 340.412        | 356.102        | 395.518        | 389.973        | 331.115         | 381.541        | 398.194        | 395.436               |
| Itzulketa UFFF                                       | 0              | 0              | 0              | 0              | 0              | -52.293        | -94.818         | -2.955         | -50.392        | -22.540               |
| <b>DIRU SARRERA FINKOAK</b>                          | <b>472.849</b> | <b>463.353</b> | <b>548.886</b> | <b>525.271</b> | <b>606.175</b> | <b>532.061</b> | <b>451.486</b>  | <b>601.764</b> | <b>579.930</b> | <b>596.373</b>        |
|                                                      | 2003           | 2004           | 2005           | 2006           | 2007           | 2008           | 2009            | 2010           | 2011           | 2012<br>aurreikuspena |
| Pertsonala, gastu arruntak, interesak                | 291.086        | 281.226        | 340.301        | 360.831        | 383.754        | 399.970        | 463.039         | 506.691        | 451.907        | 534.892               |
| 4 ura, sasieta,goieki, goimen,<br>goiherriko herrien | 77.941         | 90.760         | 66.215         | 77.447         | 89.617         | 92.970         | 96.749          | 66.163         | 64.091         | 72.362                |
| DIRULAGUNTZAK                                        |                |                |                |                |                |                |                 | 29.171         | 24.850         | 27.112                |
| <b>GASTU FINKOAK</b>                                 | <b>369.027</b> | <b>371.986</b> | <b>406.515</b> | <b>438.279</b> | <b>473.371</b> | <b>492.940</b> | <b>559.787</b>  | <b>602.025</b> | <b>540.848</b> | <b>643.066</b>        |
| <b>GUZTIRA</b>                                       | <b>103.823</b> | <b>91.367</b>  | <b>142.371</b> | <b>86.993</b>  | <b>132.804</b> | <b>39.121</b>  | <b>-108.301</b> | <b>-261</b>    | <b>39.082</b>  | <b>-46.693</b>        |

|                                 | 2003    | 2004    | 2005    | 2006    | 2007    | 2008    | 2009    | 2010    | 2011    | 2012<br>aurreikuspena |
|---------------------------------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|-----------------------|
| <b>diru sarrera<br/>finkoak</b> | 472.849 | 463.353 | 548.886 | 525.271 | 606.175 | 532.061 | 451.486 | 601.764 | 579.930 | <b>596.373</b>        |
| <b>gastu<br/>finkoak</b>        | 369.027 | 371.986 | 406.515 | 438.279 | 473.371 | 492.940 | 559.787 | 602.025 | 540.848 | <b>643.066</b>        |

**Hauek dira azken 10 urteetako datuak. Urtero errepikatzen diren partidak aztertuta. 2012koa aurreikuspen bat da, kontuan izanik ekitaldia itxi gabe dagoela eta baikorki aztertuta UFFFaren itzulketa (%5,7).**

2 alditan izan dira gastuak diru-sarrerak baino handiagoak: 2009an eta aurten. 2009an UFFF-aren zuzenketa bortitza eman zelako, eta aurten pertsonala (bajak, gaudetako zaindaria..) eta gastu komunak (argia, ura, gasa, etab...) igo direlako.

Udalak beharrezkoa du urtero aurrezki bat sortzea, proiektuak aurrera eramán behar badira, diru-laguntzek inoiz ez baitute inbertsioaren %100 finantzatzén. Horregatik, dituen aukeren artean:

- Diru-sarrerak igo zerga eta tasen bidez: gure politika ez doa ildo horretatik.
- Maileguak eskatu: ez da jasagarria hileroko gastuak ordaintzeko maileguak eskatzea. Maileguak berarekin baitakar itzulketa, eta gastu arruntak ordaintzeko gaitasunik ez baldin badago, nola egongo da maileguaren kuota ordaintzeko?
- Gastuak jaitsi: erabaki hori hartu dugu; hau da, gastu komunak eta diru-lagun-tzak jaistea. ■



# Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna











**P**asa den azaroaren 20an, Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna izan zen, eta egun horrek duen garrantziaz jabetzeko, haurren eskubideak landu genituen, eskolako umeekin.

Lehenik eta behin, Lehen Hezkuntzako ikasleek zer eskubide dituzten ulertu zuten, eta, ondoren, adin ezberdineko haurrekin talde txikiak egin, eta horma-irudiak egin zituzten eskolako aterpean, eskubide horiek aldarrikatzeko asmoarekin.

Bestalde, eskola guztiko haurren eskubideak izanik, eta munduko haur guztiek eskubide horien jabe izan beharko luketenez, eskolako haur guztien argazkiak Lurraren inguruan kokatu genituen hori irudikatu nahian.

Talde txiki horietako partaideek eskubideak ahoz eta ozen aldarrikatu zituzten, eta bideoan grabatu genituen. Bideo-muntaia eskolako blogean ikus dezakezue. ■

<http://itsasondokoherrieskola.blogspot.com.es/>





# Haurren jolasak

**Kaixo !**

**Aurreko aldizkarian hasi genuen gaiarekin segituz, oraingoan ere jolasaren inguruko hausnarketa bat ekarri dizuet irakurtzeko. Gai interesgarria iruditzen zait eta askotan gaur egun ahaztua duguna. Oraingoan ere TTiklik.com web orrialdetik hartutako pasartea da. Ea gustukoa duzuen!**

## Bizitzarako jolasak

Berri Txarrak musika taldearen kanta baten letrak dioen bezala; “Neurtu al duzu inoiz nahi duzuna eta behar duzunaren tarteko distantzia?”. Eta haurrak horretan artistak dira. Ziur nago ondo egoteko beharrak asetzeraz jotzen dutela. Gu, berriz, ez dakit beharrak ahaztu eta nahiak asetzen ez ote gabiltzan.

Eta ondo sentitzeko, haurrak jolasa erabiltzen du. Jolasa eta bestea. Eta beste hori ZU izan zintezke, haurraren ispilu, babesle eta errespetuzko maitasun giroa eskaintzen diona. Eta badauzka haurrak ondo sentitzeko jolasak psikomotrizitate gelan egiten dituenak, baina baita ere parkean, mendian edo etxean. Jaio berritako plazerzko uneak gogoraziko dizkioten jolasak dira, eta segurtasun handia ematen diote, bere garapen integralean aurrera egiteko.

Jolas horiek haurraren eragin positiboa izateko bi elementu eskatuko nituzke: errespetatzea haurraren momentuko beharrak eta gozatzea haurraren jolas horiek sortzen direnean. Bizi bere emozio, begirada, ilusio eta beldurrak. Eta jarri hitza bere bizipenei.

## Jolasak

Aurrenekoa **kulunka jolasa** da. Amaren haurdunaldi garaitik datorren jolasa. Haurra ez da gogoratuko, baina bere inkontzientean grabatuta izango du kulunka hark sortu izan dion plazera. Hortaz, ekintza hori berriro bizitzea eta, gainera, ondoan norbait garrantzitsua egonda, plazer handiz biziko du. Parkeko kolunpioek arrakasta handia izaten dute, hamakek eta zintzilikatutako sokek bezala. Erritmo desberdinen nozioak jasoko ditu haurrak jolas horrekin, eta jaio berriko egoerak berriro bizitzeko sentsazioak biziko ditu. Gurasoek lasaitzeko edo lotan jartzeko kulunkatzen zuten garaikoa.

Bigarren jolasa **apurketaren** ingurukoa da. Haurrekin gaudenean sarritan egiten dizkiogu eraikuntzak: izan egurrezko dorreak, hondarrezko gazteluak, zutik jartzen diogun plastikozko botila eta abar. Horiek guztiak gustu eta plazer handiz apurtuko ditu. Apurtzea gaizki ikusita

dagoen jendarte honetan, interesgarria da haurrari jolas giroan apurtzeko aukera ematea, ezer txarrik egiten ari den sentsazioz gabe. Aurrera begira bere apurtzeko pultsionalitatea kontrolatu ahal izango du, eta komunikatu, sortu eta pentsamendurako irekiago egongo da. Horrela, bere harremanetan ez ditu behar izango agresibitatea eta indarkeria. Onartutako apurtzeen ondoren, plazerez eta sormenez beteriko eraikuntza iritsiko zaio haurrari.

Hirugarren jolasa **ezkutaketa jolasa** da. Silvia Donet psikomotrizistak dioen bezala: “Jolas horrek amarekiko banaketa gogoratzeko eta berriz bizitzeko aukera ematen dio haurrari, modu ludikoan”. Haurrak maitasun eta erreferentia den irudia galtzeko beldurra du. Eta beldur horren aurrean, etengabeko ziurtasuna behar du haurrak, irudi erreferente hori ez duela galduko. Interesgarria da nolako emozioarekin bizitzen duten jolas hori. Haurra ezkutatzenean, irrikaz espero du aurkitua izatea eta maitatua dela ziurtatzea, baina baditu zalantza pertsona hori etorriko den ala ez. Garrantzitsua da haurraren bila gabiltzan une horretan hitz egitea, eta une horri garrantzia ematea. Horrela, haurra baloratuta sentituko da. Aurkitzeko momentuak apoteosikoa izan behar du, zorientasuna eta poza nagusituko direlarik. Haurra besarkada goxo batez bildu, eta nolako poza hartu dugun aipatuko diogu. Jarri haurren azalean. Gehien maite duen pertsona bere bila ibili da, aurkitu du eta pozez zorutzen jarri da.

Laugarrena **harrapaketa jolasa** da. Zerikusi handia dauka ezkutaketa jolasarekin. Kasu horretan, gertu-urrun kontzeptu garrantzitsuak ageri dira, haurraren ziurtasun afektiboa bermatzeko. Hau da, “zugandik urruntzeko gai naiz, nire autonomia, identitatea eta mugimendu gaitasunak indartuz, eta harrapatzeko eskatzen dizut, ziurtatzeko zuretzat inportantea naitzela”. Hasieran, haurra utzi egingo da harrapatzen, baina, pixkanaka, nahikoa izango du soilik ikustea atzetik aita edo ama doakiola harrapatzeko asmotan. Harremana estutzen doan heinean eta haurra ziurtasuna hartzen, jolasa ere eral-


datzen joango da. Harrapatzeaz aparte, otsoa edo pertsonaia beldurgarrien bat izateko eskatuko digu, horrela beren beldurrei aurre egiteko balioko dio jolasak.

Eta bosgarrena **oreka-desoreka jolasa** da. Haurra jaiotzen denetik hamaika eskutatik igarotzen da. Esku horien guztien mende egoten da hasierako hilabeteetan. Oso garrantzitsua da esku horien atentzio kalitatea nolako izan den. Nola izan den edukia besoetan, nola izan den mugitua hasierako jolasetan, nola hitz egin zaion mugimendu horien inguruan. Egoera horietan haurrak sentsazio desberdinak biziko zituen. Eta sentsazio horien oroitza-pena gordea izango du bere oroimen afektiboan. Bada, mugimendu horietan guztietan sentituko zituen haurrak oreka-desoreka egoerak. Zure magalean daukazunean, koltxoneta batzuen gainean dagoenean, oihal baten gainean dagoenean. Egoera desberdinak aprobetxa ditzakezu jolas hori egiteko. Aipatu haurrari une batetik bestera eroriko dela, baina sorpresa eta jakin-min hori mantendu. Emozio handiz biziko du haurrak erori aurreko momentua, bai eta erori ondorengoa ere.

Azken finean, haurrak inork baino hobeto ezagutzen ditu bere beharrak. Nahiz oinarritzkoak (noiz den gose, hotz, bero, nekatuta, aspertuta), noiz duen curiositatea, maitasun beharra, ziurtasun beharra edo lasai bakarrik egoteko beharra. Uste dut bere ondoan egotea, behar horiek entzutea, ulertzea eta errespetatzea dagokigula. Eta bide horretan eskatzen dizkigun jolasak behar horien inguruan ibiliko dira.

Eta gogoratu haurrak ez duela jolasten jolasteagatik. Jolasak eskaintzen diogazatik baizik. Eta oso ondo daki jolas bakoi-tzak zertan aberasten duen, bere beharrekinekonektatua dagoelako. Animo eta eman jolasari!■

**Bestalde, gogoan izan, Haurreskolako matrikulazio epea zabalik dagoela, eta ateak irekita dituzuela edozein galdera egitera etortzeko ! Edo bestela, deitu 9430164831 telefonora... Zain naukazue!**



**Josu Sarasola**

## Hegats-igeriketan munduko txapelketan parte hartu duen itsasondarra

Elkarrizketa honetan, hegats-igeriketa kirolean murgilduko gara Josurekin, eta, bertan, bere kirol ibilbidean izan dituen esperientzia eta gertaerak kontatuko dizkigu. Kirol interesgarri hori ezagutzeaz gain, Munduko Txapelketako bizipenak ere azalduko dizkigu.





### Zein da Josu?

Hamasei urte dauzkat, eta herrian eskola-ko gazteen eta haien gurasoen artean naiz ezaguna. Momentu honetan, Ordiziako Oianguren institutuan 1. Batxilergoa ikasten ari naiz, eta bizitzaren zati handi bat Ordizian egiten dut.

### Igeriketan ibiltzen zinela bagenekien, baina orain ospe pixka bat hartu duzu?

Ni igeriketa mota berezi batean ibiltzen naiz; hau da, hegats bidezko igeriketan edo hegats igeriketan. Modalitate horretan, hegats batekin edo birekin igeri egin dezakezu.

### Noiz eta nola sortu zitzaizun hegats igeriketarako zaletasuna?

Txikitatik esango nuke. Anaia zaharrena (Gorka) hegats igeriketan aritzen zen, eta lehiatzen ikusten nuenean, kirol horretarako grina pizten zitzaidan. Anaiarekin sei urteko aldea daukat, eta berak nire adinerrako Errusian eta Polonian egona zen lehiatzen. Anaia Espainia mailan lehiatzen zen, eta oroitzen naiz nola joan ginen ikustera Sevillara. Momentu hartan kirol horretarako zaletasun handia sortu zitzaidan, nahiz eta mutil kozkor bat izan. Gainera, Ordizian urtero Open bat antolatzen zuten (aurten ez da egingo) eta bertara Europako igerilari onetsuenak etortzen ziren. Open horretan, nire adineko umeak lehiatzen ikusi nituen, eta hura izan zen hegats igeriketan izena ematera bultzatu ninduen. Itsasondan, Lehen Hezkuntzako 5. mailan nenbilela, Ordiziako taldeak proba bat egiten utzi zidan.

### Nolakoak dira lehenengo urteak?

Hasierako urteak zailenak izaten dira, eta, urte horietan, teknika harrapatzen saiatu behar duzu. Hori da jendeari gehien kostatzen zaiona.

### Beraz, lehenengo bi urteetan teknika ikasten?

Bai, eta lehiatu gabe. Oroitzen naiz igerilari zaharragoekin lehiaketetara joaten nintzela, baina nik ezin nuenetz parte hartu, kirolarekiko grina handiagoa bihurtzen zen.

### Zertan datza teknika hori?

Mugimendua bularrean hasi eta hanka puntetan amaitzen da. Uhin moduko mugimendu bat egin behar duzu. Igerilarien artean sirena baten mugimendurekin alderatzen da. Besoak burutik

gora gurutzatu, eta geldirik edukitzen dira. Mugimendua bularretik behera hasten da. Munduan, italiarrek daukate teknika hoberena, eta munduko txapelketetan dena irabazten dute. Italiarrak Ordiziako Openera etortzen dira, eta urtero zerbait berria erakusten digute teknikari buruz.

### Teknika garatzen egon ondoren, noiz hasi zinen lehiatzen?

Lehen aipatu dudan bezala, teknika garatzen nenbilen bitartean ez nuen lehiatzen. Horrela, lehenengo aldiz lehiatu behar nuenean, ez zidaten abisatu, eta, besteetan bezala, beste igerilarekin batera berotu eta luzatu ondoren, denborak hartu edo begiratzea joan nintzen (hau, egia esan, nahiko etsigarria zen). Baina aukera hartan, lehiaketa iteerara joateko esan zidaten. Nik hasieran uste nuen txantxetan zebiltzala, baina egia zen. Proba motzena izan zen, eta nahiko motel aritu nintzen.

### Non izan zen?

Lehenengo lasterketa Iruñean izan zen. Gainera, Iruñeko igerilekuak bazeukan bitxikeria bat: hogeita bost metrokoa zen, baina alde bateko paretan zulo batzuk zituen, eta alboko beste igerileku batekin komunikatzen ziren. Kontatu zidaten Apnea hegats igeriketako modalitatean (ur azpitik igeri egiten duzu), igerilari bat beste igerilekura pasatu zela. Orain igerileku berri bat dago.

### Euskal Herrian lehiatzen zarete?

Orain arte, Iruñekoak, Tafallakoak, Tolosakoak eta gu (Ordiziakoak) ibiltzen ginen liga moduko batean, baina orain Aragoikoak eta Gaztelakoak elkartu zaizkigu liga horretara.

### Behin lehiatzen hasita, hobetzen joango zinen.

Egia esan, orain konturatzen naiz bi urte horietan teknika landu beharrean lehiatzen hasi eta erresistentzia landu banu, orain egiten ditudan denborak (markak) ez nituela egingo. Beraz, teknika ona edukitzea oso oinarri ona da.

### Entrenatzaile onak izango dituzue.

Hasierako urteetan, ni baino zaharragoak ziren igerilariak irakasten zidaten teknika, baina hamabi-hamahiru urtetik aurrera, Gorka Merino eta Xabier De Migelekin hasi nintzen, eta oso teknika ona daukatenez, asko ikasi nuen.



**Hasierako urteak zailenak izaten dira, eta, urte horietan, teknika harrapatzen saiatu behar duzu. Hori da jendeari gehien kostatzen zaiona.**

**Anaiak egindako markak dira erreferentzia. Gainera, ez dut lortu hobetzea berak nire adinarekin egindako denborak, baina bai selekziara joatea.**

**Europako txapelketetara joango naiz, eta han finalen batean sartzea gustatuko litzaidake.**

### Hegats igeriketan zein modalitate daude?

Igerilekuan lau modalitate bereizten dira:

- Ur gainazaletik hodiarekin igeri egiten dena. Modalitate horretan, 50, 100, 200, 400, 800 eta 1.500 metroko distantziak daude.
- Apnea edo ur azpitik arnasarik hartu gabe egiten dena. 50 metroko distantzia bakarrik dago modalitate horretan.
- Eskafandra, edo ur azpitik baina oxigeno botilarekin eskuetan igeri egiten duzu. 400 eta 800 metroko distantziak daude.
- Bi hegats. Modalitate klasikoa da. Aurreko hiruretan monoletarekin igeri egiten duzu. Hemen 50, 100 eta 200 metroko distantziak daude.

Igerilekuetatik kanpo, ibai eta laku batzuetan trabesiak egiten dira. Distantzia luzeak dira. Adibidez, Bidasoa ibaiko jaitsierak bi ibilbide dauzka: motza (6,5 km) eta luzea (13 km).

### Zein dira zure gustuko probak?

Nire gustukoak dira ur gainazaletik 200, 400, 800 m, eta eskafandran 400 m.

### Eta markarik hoberenak?

Eskafandran 400 metroan 3 min 20 s, eta ur gainazalean 400 metroan 3 min 29 s.



L'hospitaleteko Espainiko txapelketako 4x200 probako zilarrezko domina jasotzen



Valladolideko Espainiko txapelketan 800m-ko proba



Valladolideko Espainiko txapelketan 4x200m erreleboa



Espainiko Selekzioarekin Austrian



L'hospitaleteko Espainiko txapeletan 100m eskafandran igeri egiten



Espainiko Selekzioko 4x200 erreleboa

Eskafandran ur azpitik zoazenez, azkarra- go joaten zara. 200 metroan 1 min eta 36 s eta 800 metroan 7 min 25 s.

### Hegats igeriketan jantzi bereziak erabiltzen dituzue?

Ez, igerilari arruntek erabiltzen dituzten jantziak dira. Gorputz osoko bainujantziak zeuden orain arte modan, baina orain debekatu egin dituzte. Txanoa eta betaurrekoak ere arruntak izaten dira. Bainujantziarekin batera, garrantzia daukate monoalete. Nahiko handiak izaten

dira, pieza batekoak eta oinetan ipintzen dira. Arnasa hartzeko hodia daukagu, eta ez da aldamenetik ateratzen, aurpegi aurretik baizik. Ur gainazaleko probetan erabiltzen da. Eskafandrako proban botila daukagu. Ibaietako trabesietan neopreno-ko jantziak erabiltzen dituzte.

### Anaia erreferentzia izan al duzu?

Behin lehiaketetan hastean, zure markak hobetuz doaz, eta hasieran zure erreferentzia zu baino zaharragoak

diren igerilarien markak dira. Baina nire kasuan, anaiak egindako markak dira erreferentzia. Gainera, ez dut lortu hobetzea berak nire adinarekin egindako denborak, baina bai selekziara joatea.

### Estatutik zehar ibiliko zinen lehiatzen?

Marka onak egiteak maila altuagoan lehiatzea dakar. Espainiako hainbat lekutan ibilia naiz: Mallorcan, Lleidan, Bartzelonan, Valladoliden, Alacanten...



**Nola sartu zinen Espainiako selekzioan?**

Nik Junior mailan igeri egiten dut, eta abenduan lehiaketa bat egiten da. Bertan, Espainia mailako lau Junior hoberenak elkartzen dira. Aurreko urtean, 400 eta 800 m ur gainazaletik eta 400 m eskafandran, lau igerilari hoberenen artean sartu nintzen. Modu horretara Espainiako selekzioan sartu nintzen, eta munduko txapelketetara joateko aukera izan nuen. Aurreko urtean parte hartu nuen lehenengo aldiz Espainiako selekzioarekin. Euskadiko selekziorik ez dago.

**Munduko txapelketak urtero egiten dira?**

Ez, bi urtetik behin. Tartean, Europako txapelketak ere izaten dira, bi urtean behin. Aurreko urtean, munduko txapelketak jokatu ziren, eta Austriara joateko aukera izan nuen.

**Beraz, Austriara munduko txapelketetara?**

Bai, eta esperientzia polita izan zen. Hemendik lau mutil joan ginen (hiru valentziarrak eta ni) eta bi neska (bata Bartzelonakoa eta bestea tolosarra). Lehendik elkar ezagutzen genuen. Lehenengo Bartzelonan elkartu, eta hurrengo egunean Austriara joan ginen. Han, hotelean, beste herrialdeetako igerilariekin egin genuen topo. Denera, Austrian astebete igaro genuen. Hiru egun lehiatzeko, eta beste hiru egun turismoa egiteko aprobetxatu genituen.

**Herrialde asko elkartzen zarete?**

Europatik Frantzia, Italia, Polonia, Errusia, Estonia, Alemania... Ameriketatik Kolonbia, Venezuela... Asiatik Korea, Txina, Japonia...

**Zer moduz moldatu zinen?**

Nire maila ezin da alderatu italiarrekin edo errusiarrekin. Gainera, nahiko nekatuta iritsi nintzen. Espainiako txapelketen aurretik entrenamendu gogorrak egin nituen, bai eta lehiaketak ere. Horren ondorioz, munduko txapelketetan ez nituen oso denbora onak egin, nahiz eta oso aukera ona izan denbora pertsonalak jaisteko.

**Hori al da mundu mailan lehiatzeko aukera bakarra?**

Urtean zehar, munduko kopako sei lehiaketa izaten dira, baina horietara munduko hoberenak bakarrik joaten dira. Mota horretako lehiaketetan, talde bezala joaten zara, eta ez selekzio bezala.



**Zein dira aurtengo denboraldiko helburuak?**

Helburu nagusia da ondo entrenatzea eta denboraldi amaieran marka onak lortzea. Dauzkadan denborak jaisten baditut, seguruenik Europako txapelketetara joango naiz, eta han finalen batean sartzea gustatuko litzaidake.

**Nolakoa da Josuren egun normal bat?**

Eguneko ordurik gehienak institutuan pasatzen ditut, ikasten, goizeko 8:30etik eguerdiko 14:30era. Ondoren, bazkaldu eta siesta egiten dut. Eskolako lanak egin, eta entrenatzera joaten naiz. Handik etorri, afaldu eta lotara. Astelehenetan eta asteazkenetan judo ere egiten dut.

**Judo egiten duzu?**

Igeriketarekin oso bateragarria da, eta ondo etortzen zait gorputzeko malgutasuna hobetzeko. Horrez gain, uda partean, denboraldia amaitu ondoren, surfa ere egiten dut Zarauzko hondartzan.

**Hegats igeriketan, gertaera xelebrik egokitu al zaizu?**

Gertaera ez, baina nahiko bitxia da Errusiako hegats igeriketa taldekoak militarak izatea, eta italiarrak polizia nazionalak.

**Herriko norbait animatuko zenuke kirol horretara?**

Bai, noski. Ordiziako taldean oso giro ona dago, eta jendea behar dugu. Gainera, kuota bat ordaintzen duzu, eta beharrezko material guztia uzten dizute.■

3 galdera motz

**Zer duzu gustuko Itsasondon?**

Herri giroa, denok elkar ezagutzea.

**Zer botatzen duzu faltan Itsasondon?**

Parranda. Orain dela urte batzuk taberna gehiago zeuden, eta Gaztetxean kontzertuak egiten zirela entzuna daukat. Hori agian.

**Inoiz izan duzun amets bat?**

Kirol horretan gabiltzan guztien ametsa izango litzateke munduko txapeldun izatea.

**Zure burua ikusten duzu munduko txapeldun?**

Hemen Ordiziako taldearekin ez, baina Italiara joanez gero entrenatzera, aukeraren bat izango nuke.

# Kultur ekintzetan zer?

**Parte hartzen al duzu herrian antolatzen diren kultur ekintzetan?**

**Zer kultur ekintzatan parte hartzea duzu gustukoen?**

**Kultur batzordeari zer ekintza egiteko proposatuko zenioke?**



**Iñaki, Miguel, Amaia eta Rakel**

Normalean bai, gustuko dugu ekintzetan parte hartzea, eta, batez ere, plazaren inguruan antolatzen direnean. Talo ikastaroan eta talo festan gustura parte hartzen dugu. Antzerkiak eta hainbat motatako ikastaroak antolatzea ondo egongo litzateke.



**Gorka eta Nerea**

Kultur ekintzetan parte hartzea gustuko izaten dugu. Talo ikastaroan parte hartu genuen, eta oso gustura egon ginen. Jende asko bildu ginen, eta guztiok ibili ginen gustura. Bestalde, taloen egunean lanean egon ginen taloak egiten. Horrelako ikastaroak gustuko ditugu. Hala ere, ordutegi alde-tik arazoak izaten ditugu, eta ondo egongo litzateke larunbat goizetan ikastaro batzuk antolatzea. Adibideak: zeramika ikastaroak, zaharberritze ikastaroak, sukaldaritza ikastaroak, eskulanak... Laster Korrika dator, eta euskararen alorrean zer edo zer prestatzea ondo egongo litzakete.



**Jabi, Sonia eta Mª Teresa**

Parte hartzeko joera dugu normalean; batez ere, haurrentzako ekintzak prestatzen direnean. Gustuko ditugun ekintzetan parte hartzeko arazok izaten ditugu normalean; izan ere, ohikoena izaten da ekintzak arratsaldean antolatzea, eta haurrekin egon behar izaten dugunez, ez dugu parte hartzeko aukerarik. Gure proposamenak hurrengoak lirateke: sukaldaritza ikastaroak, argazkigintza ikastaroak, zeramika ikastaroak...



# Gipuzkoaren jatorria

**Azaroaren 27an, Gipuzkoaren jatorria benetan zein den erakusteko eta gipuzkoartasunaren mitoa argitzeko dokumental bat egin du Nabarraldek. Elkarte horretako kide Beñi Agirre “Gipuzkoaren jatorria. Historia, mitoaren eta elezahararren artean” dokumentala aurkeztera etorri zen Itsasondora.**



O rain arte, Gipuzkoa betidanik existitu izan balitz bezala kontatu digute historia, baina, Nabarraldek uste hori desmitifikatu egiten du dokumental honetan.

Probintziaren armarrri zaharrea «Fidelisima Vardulia nunquam superata» esaldia dago idatzita, nahiz eta Gipuzkoak ez izan erromatarrek aipatutako barduluen leinuarekin segidarik, ez eta bestelako antzinako mitoeekin zerikusirik ere. Modu sinplean esateko, Gipuzkoa, egiazki Gaztelak (bir-)antolatutako lurraldea da, euskal itsasoaren ondasunez eta industriaz jabetzeko eta Nafarroaren kontrako gerran eraso plataforma gisa erabiltzeko.

Izan ere, historialariek antzinako kobazulo, jentil eta basajaunen istorioetatik abiatuta, kolpetik, gaztelarrek 1200. urte inguruan sortutako hiribilduei emandako gutunetara jauzi egiten dute. Nolatan kobazulo garaian, Burdin Aroan edota erromatarrekin batera bizi ziren inguruotako euskaldunen lurretan, bat-batean, gaztelarrak agertu eta hiriak sortzen has ten dira? Historialari ofizialek ez dute azaltzen gaztelarrak nolatan eta zergatik dauden hemen. DVD honetan, pauso hori eta gerokoak nola gertatu ziren argitzen saiatu dira, eta horregatik, eskoletan eta historia curriculumetan barneratzeko oso aproposa dela uste du Nabarraldek. Datu asko eta berriak, beste tokietan aurkitzen ez direnak, dakartza lan honek.

Lurraldearen zati bati buruz ezagutzen den lehen aipamen idatzia 1025eko dokumentu batekoa da, Olazabalgo doaintza izeneko dokumentukoa hain zuzen ere. “Ipuzkoa” izeneko lurralde bat aipatzen baita, Iruñeko erresumako gaztelu-zaintza bat, alegia. Idoia Arrieta historialariak argitzen digunez, “XII. mendean Gipuzkoa lur eremu geografiko zabala eta zehaztasun gabekoa zen, ez zen barruti politiko-administratiboa oraindik eta Nafarroako erresumaren parte zen. Hortaz, 1200. urtearen aurretik Gipuzkoak ez zuen lurralde batasunik. Hiru tenentzian eta Nafarroako erregearen ordezkarien gobernupean banatuta zegoen, alde batetik Ipuzkoa lurraldea baitzegoen (Urola eta Oria ibaien bitarteko lurraldea), eta bestetik ekialdeko zein mendebaldeko mugak. Agiriek behin eta berriro azpimarratzen dute Ipuzkoako eta Donostiako tenentzien bereizketa. Donostia, zalantzarik gabe, Oria eta Bidasoa ibaien artekoa zen. Errege gaztelarrak 1200. urtean lurralde horiek konkistatu ondoren agi rietan azaltzen da ondoko esaldiekin: “Regnante rege Aldefonso cum uxore sua domna Alienor regina, in tota Castella et in Alava et in Campezo et in Maranon et in Ypusqua et in Sancto Sebastiano”.

Dokumentalean argi azaltzen denez, lur horiek denak Gaztelako Alfonsot VIII.ak konkistatu zituen 1200. urtean. Hurrengo bi mendeetan, berriz, irabazitako lur haiek egonkortu zituen Gaztelak: hiribilduak sortu, jaunei mesedeak egin, ganboatarren eta oinaztarren arteko liskarrak bere alde erabili eta gaizkileen muga bezala ezagutzen dena altxatu zuen Nafarroa izaten segitzen zuen muga-esparruan. Erasoak, istiluak, gerrak, Beotibarkoa bezalako batailak... izan ziren garai haietan.

Gaztelako eraso eta jokoak interes handia sortu du historiografian, gehienetan helburu polemikoa eta politikoa tarteko. Gipuzkoa konkistatua izan zela ko zantzu guztiak zeudenean (orain dokumentatuta), borondatezko paktua ren teoria (inoiz dokumenturik azaldu ez bada ere) indartu zen. Zeren eta, XIII. mendeko kroniketan ez dira datuak azaltzen, ez konkistaren alde ez borondatezko batzearen alde. XIV. eta XV. mendeko kronika nafarretan ere ez. XVI. mendearen bigarren erdialdeko historialariek (Juan Martinez Zaldibiakoa, Esteban Garibai), ordea, Gaztelarekin borondatez batzearen teoria defendatu zuten, eta gerora joera interesatu hori nagusitu zen. Gezurra badirudi ere, ildo propioa sortu eta arrakasta handia lortu zuten. Geroztik, polemika etengabea izan da, eta gaur egun arte itunaren teoria ia aurkakorik gabe mantendu da.

Horren harira garrantzizkoa da oso Idoia Arrietak garaiko dokumentuen arrastoan aurkitutako aipuak. “Bitxia bada ere, 1332. urtean datatuta dagoen dokumentuak honela dio: *Traslado del fuero de San Sebastián sacado a petición del concejo de la villa de Guetaria eta hau esaten du izenburuan: (...) Don Alfonso de Castiella, que Dios perdone, que la dicha villa conquistó (...)*

Dokumentua Madrilgo Errege Akademian jasota dagoen agiriarekin konparatu zuen. Azken honen izenburua bestelako hau da: *1202-1332 Guetaria SS. Parte del Fuero de S.S. Y en el preambulo se dá por sentada la conquista de S. S.* eta dokumentuaren ezkerreko aldean ohar bat: “*ojo conquista de S.S.*” Sinestezina dirudi, zeren eta, honekin guztiarekin, mendeetan zehar, Gaztelako erresumara Donostiaren bat egitea armen bidez eta bortxaz izan zela ezkutatu nahi izan da. Era berean, Gipuzkoaren konkistaren argibidea frogatu da.

Gaztelaren esku zegoela, 1397an, lehen aldiz bildu zen Getarian Gipuzkoako Hermandadea, Ipuzkoako eta Donostiako antzinako gaztelu-zaintzak hartzen zituen. Ehun urte beranduago, Deba bailara gehitu zitzaion, Aitzorrotzeko tenentzia, eta horrela,



Iruñako Erreinuaren mapa osoa



Euskal Herriko hizkuntzak eta gutxiengo erlijiosoak Behe Erdi Aroan

gipuzkoar armarriko hiru haginek sinbolizatzen duten lurra osatu zen. 1845 arte -Oñati orduan batu baitzen-, ez zen gaurko probintzia osatu.

Beñi Agirreren esanetan, berritzaile diruditen datu horiek ezagunak badira ere, historiografia ofizialak interes handia izan du horietako batzuk ezkutatzeko. Gipuzkoaren eta Gaztelaren artean emandako ustezko itunik izan ez zela erakusten du dokumentalak, 1200ean Gipuzkoa ez baitzen existitzen. Beraz, ezinezkoa da inork gipuzkoarren izenean ezer sinatzea. Akordiotik urruti, Aitzorrotz gazteluaren inguruan egindako indusketa lanetan borroken arrastorak aurkitu dituzte. Horren argitan esaten da egungo Gipuzkoa indarrez pasatu zela Gaztelako lurralde izatera.

Ondorengo mendeetan gaztelarrek hartutako erabakiak 1512ko Nafa-

roaren inbasioa prestatzera bideratu zituzten. Nafarroarekin muga zeuden herriak gotortu eta harresitu egin zituzten gaztelarrek: Hondarribia, Hernani, Tolosa, Ordizia... eta Agirrek gogoratu duenez, Gaztelak sustatu egin zituen Ahaide Nagusien edo jauntxoaren arteko borrokak. Ondorengo Gaztelako erregeek bere alde egiten zuten jauntxoak babestuz, Nafarroa Garaia konkistan erabili zituen.

Gipuzkoaren jatorria DVDak gertaera historiko hauek azaltzen eta zehazten ditu, eta horretarako historialari hauen laguntza ezinbestekoa izan da: José Luis Orella Unzué, Idoia Arrieta, Iñaki Sagredo eta Beñi Agirre. Angel Rekalde Nabarraldeko zuzendariak egin du gidoia, eta Ruben Marcillak zuzendu du filma. ■





## Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko mitoak

**Forma ezberdinak dituen emakumeen aurkako indarkeria emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria dugu, eta, horrenbestez, giza eskubideen urraketa nabarmena eta onartezina da. Emakumeen aurkako indarkeria oso konplexua den arazo politiko eta soziala da, eta, desagerarazteko, beharrezkoa da eremu ugaritan esku hartzea. Horrela, azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeriaren salaketa eguna dugu.**

Indarkeria mota horren kontra egiteko, beste giza eskubideekin gertatzen den moduan, ezinbestekoa da prebentzioa. Azken horretan jarduteko, oso baliagarria izaten da mitoak errealitatearekin alderatzea, eta eguneroko datuek eta egoerek ematen diguten informazioarekin mito horiek guztiak gezurtatzea. Emakumeen indarkerian ere mito asko ditugu, eta gizonen zein emakumeen ahotan entzun ditzakegu. Hona hemen mito batzuen aipamena:

*“Indarkeria behin bakarrik gertatu da, eta ez da berriro gertatuko”.*

Indarkeria jasan duten emakumeen istorioak aztertuz, agerikoa da indarkeria gertatuz gero, errepikatu egiten dela, eta, beraz, behin gertatzen denean, atea irekita gelditzen dela, zoritxarrez, berriro gertatzeko. Eta ez hori bakarrik. Askotan, gainera, indarkeriaren erabilera eta ondorioak gero eta gogorragoak izaten dira. Beraz, behin pairatzea nahikoa da aski dela esateko.

*“Gizon mota batzuek bakarrik egiten dute”.*

Gure gizartean oso zabalduta dago kanpotarrek edota erlijio zehatz bateko

gizonezkoek indarkeria erabiltzeko joera handiagoa dutela. Gero, datu estatistikoek agerian uzten dute bertako emakumezkoen zein gizonen artean kanpotarren artean baino gehiagotan gertatzen direla indarkeria-kasuak.

*“Bikotelaguna gaizki tratatzen duten gizonen indarkeria pertsona guztiak erabiltzen dute, eta ez soilik bikotelagunarekin”.*

Mito horren arabera, emakumeen kontra indarkeria erabiltzen duten gizonen artean era naturalean bortitzak dira pertsona guztiak eta esparru guztietan, alegia, bai lanean, bai kalean, eta ez bakarrik etxean. Kasuak aztertuz gero, ordea, argi dago proportzio handi batean, gizon bortitz horiek etxean eta emakumeen kontra soilik erabiltzen dutela indarkeria, eta kontraesana badirudi ere, esparru publikoan (lanean, adibidez), pertsona ahulak diruditelako.

*“Hain bortitza izanda jasandako indarkeria, emakumeak segituan salatuko zuen”.*

Mito hori oso zabalduta dago gure gizartean. Horretan sinesten duten pertsonen uste dute salaketa jartzeko erabakia erraza bezain automatikoa dela. Horrela, indarkeria jasanez gero, erreakzio logikoa izango litzateke segituan bikotelaguna salatzea. Baina gero errealitatea askoz konplexuagoa da. Orokorrean, edozein egoeraren aurrean, behin baino gehiagotan salaketa jarri ala ez pentsatzen dugu, kontuan hartzen baitugu sistema judiziala martxan jarriko dugula, prozesu horien irizpideak ez ditugula menderatzen... Beraz, erraza eta automatikoa izango da zure bikotelaguna, zure senarra, poliziaaren aurrean salatzea eta zure etxe barruko arazo bat publiko egitea? Datuek argi uzten dute emakume askok eta askok ez dutela salatzen, salaketaren ondorioen beldur direlako, edo bere hitzak epaile baten aurrean ez direlako sinesgarriak izango, besteak beste.

Eta, azkenik, zabaldutena: *“Gizonezkoek ere indarkeria jasaten dute bikotelagunen aldetik”.* Datu bat: biktimen % 99 emakumeak dira. Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.

Denon esku dago, beraz, emakumeek jasaten duten genero indarkeriaren kontra mitoak baino haratagoko iritzia eta jarrera izatea. ■

## Ilusio berriak

Itsasondoko gazteok hemen gatoz berriz ere herria berpizteko asmoz! Duela bi urte hasi genuen bidea, eta fruituak eman zituen: I. Herri Eguna, Guztiona. Jarraipena ere izan zuen, II.a ere egin baikenuen. Argi geratu zen, beraz, itsasondorak parrandazale finak garela, eta gustura murgiltzen garela herri giroan.


Ordutik, gure presentzia ez da hain nabarmena izan, eta hori herri giroan nabaritu dela uste dugu. Hala ere, gure ideiak eta asmoak kaleratu ez ditugun arren, lanean aritu gara, eta hemen gatoz proposamen berriei.

Argi utzi nahi dugu herriko eragile nagusietako bat izatera heldu nahi dugula. Horretarako, badakigu lan asko dugula egiteko, baina ezinbestekotzat jotzen dugu horren aurrean herriak erantzutea. Gogotsu ekin diogu ibilbide honi, eta indar handiarekin etorri gara. Beraz, ez gaude edozein oztoporen aurrean kikitze prest.

Gure helburua da askotariko ekintzak egitea; hala nola, film edo dokumentalen emanaldiak, argazki erakusketak, mendi irteerak... tartean, ez dira faltako festa eta parranda, noski! Herri Eguna garrantzitsua den bezala, ez gara horretara bakarrik mugatzen, eta gustu, sexu eta adin guztietako jendearentzako ekintzak egiteko asmoa dugu. Beharrezkoa da ekintza horietara ahalik eta jende gehien biltzea, dinamika bat sortzeko eta gure ondorengoek guk irekitako bideari jarraitzeko.

Aldizkarian txokoa egin dugu jada. Ale guztietan izango duzue gure berri, baina ez hemen bakarrik, kalean ere nabaritu da gure presentzia. Hori da gure helburua behintzat! Beraz, ez dago aitzakiarik, ezinbestekoa zara. Lagunarteko giroan lortuko dugun herri-poza ez dela nolanahikoa izango eta elkarrekin une on ugari igaroko ditugula ziurtatzen dizugu. Baina arestian esandako hitz horiek guztiak praktikara eraman behar ditugu. Horretarako, datozen ekintzen berri izango duzue, eta kalean gure oihartzuna nabaria izango da.

ILUSIO BERRIAK EGIA BIHURTZEKO BIDEA HASI DUGU. GUREKIN BATU NAHI? ■





*Hilabete baino gehiago igaro da Itsasondon atez ateko hondakinen bilketa sistema ezarriko zela iragarri zenetik. Orduz geroztik, hainbat bilera egin dira zonaka nahiz sektoreka herritarrekin, atez ateko hondakinen bilketaren behin betiko diseinua nolakoa izango den erabakitzeko. Orotara, 140 bat herritarrek hartu dute parte bileretan, hainbat gairen inguruan eztabaidatu, iritzia eman eta ekarpenak egiteko.*



Kalean geratuko diren kontainerrak

## Itsasondoko hondakinen atez ateko bilketa

Atez ateko informazio bulegoa (Udaletxean): Urtarrila 8tik aurrera.

Astearte eta ostegunetan:  
11:00-13:00 / 16:00-19:00



Azaroaren 15ean egindako batzarra



Azaroaren 20an egindako batzarra



Banatuko den kubo sorta

Sasietak Mankomunitateko eremuan hondakinak gaika biltzeko eredu eraginkorrago bat ezartzeko bideragarritasun azterketaren berri izan ostean, Itsasondoko Udala hondakinen atez ateko gaikako sistema berria eta pertsonalizatua ezartzeko bidean da. Bideragarritasun plana, egiaz, aurreko legegintzaldian sortutako proiektua da, eta 2012an Spora enpresa katalanari eskatu zaio bideragarritasun plan hori. Sporak urteak daramatza Kataluniako nahiz kanpoko hainbat instituzio eta erakunderekin lanean. Hala, Katalunian kolore guztietako alderdi politikoek (CIU, PP, ERC, PSC...) gobernatutako udaletan jardun dute hondakinen bilketa sistema eraginkor eta pertsonalizatuak ezartzen.

Axier Garro Itsasondoko alkatearen esanetan, aspalditik Itsasondoko Udalaren nahia izan da ahalik eta ingurumen politika eraginkorrenak bultzatzea. Horrexegatik, Itsasondo izan zen lehena kontainer marroia jartzen, eta 2011ko uztailetik aurrera, zabor edukiontzia kendu eta, hein batean bederen, bilketa

pertsonalizatu zen: "Azken hilabeteetan zaborren kudeaketan izugarri hobetu dugu, eta itsasondorrei egiten ari diren lana aitortu eta eskertu behar zaie. Une honetan, gu gara mankomunitatean birziklatze tasa onenak dituen herria, eta etorkizunean ere horrelaxe izaten jarraitu nahi dugu. Beraz, atez ateko sistemaren bidez helmuga horretarako bidean beste urrats bat ematea tokatzen da orain". Izan ere, uneotan Itsasondoko % 63 inguru birziklatzen da: errefusa % 7 da, baina kanpora eramaten diren hondakinak % 30. Bilketa sistema hobetuta, % 90 birziklatzera iristeko aukera egongo da, baina horretarako herritar guztien ahalegintxo beharrezkoa izango da: "Emaitza hori lor dezakegu guztion artean, eta, horrexegatik, prozesu honetan aktiboki parte hartzea gonbidatu nahi zaituztet" azaldu du alkateak.

Mankomunitatearen eremuan hondakinen gaikako bilketarako ahalik eta sistema eraginkorrena ezartzeko Sporak egindako bideragarritasun plana eta proposamena herritarrekin partekatu nahi

izan ditu Itsasondoko Udalak. Sasietak proposatu duen oinarritzko ereduaren arabera, herri-kaxkoan, papera, ontzi arinak, materia organikoak eta errefusa mankomunitateak banatutako ontzietan aterako dira. Beira, etxeko olioak, pilak eta arropa, berriz, orain arte bezala jasoko dira. Landagunean, birziklagune komunitarioak jarriko dira, eta, azkenik, hondakin kopuru handiak sortzen dituztenei konponbide pertsonalizatuak eskainiko zaizkie.

### Bilketa modu irekia

Hala ere, atez ateko bilketa egiteko eredu irekia da, eta behin betiko sistema ezarri aurretik, zonaka eta sektoreka hainbat bilera egin dira erabakiak hartu eta proposamenak jasotzeko. Hala, azaroaren 15ean herritarren aurrean atez ateko bilketarako proposamena aurkeztu ostean, parte-hartze prozesua ireki da abenduaren 18ra bitartean. Parte-hartze bileretan, oro har, ereduaren inguruan hitz egiteaz gain, beste hainbat erabaki ere hartu dira.

Hasteko eta behin, ontzi urdinaren orde, komunitateko edukiontzia handiago bat erabiltzea etxebizitza bateko kideen esku geratu da. Bigarrenik, ontzi arinen kubo horia ere aukerakoa da, eta bere orde, mankomunitateak ematen dituen poltsa horiak erabiltzeko aukera dago. Itsasondoko herritarrek, ordea, nahiago izan dute kuboak mantentzea ontzi arinen bilketarako. Hirugarrenik, bizilagun komunitate bakoitzak erabakiko du zintzilikarioak jarri edo ez, eta jartzekotan non jarri. Azkenik, bilketa egutegia eta ordutegia ere irekiak dira. Horri dagokionez, bilketa ordutegia 11:00ak arte luzatzeko proposamena egin dute herritarrek, baita errefusa larunbatean beharrean, aste barruan jasotzekoa ere.

Horrez guztiaz gain, berrerabilpenaren, birziklapenaren, autokonpostajearen nahiz neurri zuzentzailearen gainean ere hitz egin da, eta proposamenak eta ekarpenak egin dituzte itsasondorrek Udalera nahiz Sasietak Mankomunitatera bideratzeko. Hainbat kezka eta arazo sektorial ere azaleratu dira, eta, ondorioz,

oso aberasgarriak izan dira parte-hartze bilerak zerbitzuaren hobekuntzarako. Ekarpene guztiak Udalera eta Sasietako Mankomunitatera pasatuko dira orain, aztertu, eta posible den kasuetan, martxan jartzeko.

Aipatutako guztiaz gain, Sasietako Mankomunitateak egindako proposamenak badiu hainbat ezberdintasun gaur egun martxan dauden atez ateko bilketekin alderatuta. Alde batetik, traste zaharren bilketa mantendu egingo da; beste aldetik, organikoarentzat poltsa biodegradagarriak erabiliko dira, eta, azkenik, sortzen den hondakin kopuruaren arabera ordaintzeko aukera ematen duenez, epe motzean norabide horretan lanean hasiko da.

Axier Garro Itsasondoko alkatea pozik agertu da parte-hartze prozesuan 140 pertsona inguru ibili direlako: "Azken batean, hondakinen bilketarako sistemarik eraginkorrena guztion artean diseinatu dugu. Itsasondo, bere txikitasunean, ingurumen kontuetan eredu izan da orain artean, eta aurrerantzean ere hala izaten jarraituko du".

### Hurrengo urratsak

Behin atez ateko gaikako bilketa pertsonalizatua egiteko sistema herritarrekin diseinatu, Itsasondoko Udala atez ateko informazio bulegoa irekiko du Udaletxean (ondoko taulatxoan) eta atez atekoaren gaineko zalantzak argitzeko teknikaria jarri du: Amaia Ozaeta. Beronen egitekoa izango da etxebizitza bakoitzeko bizilagunekin batera zintzilikarioak jarri ala ez erabakitzea, eta, jartzekotan, zein sistemarekin eta non jarri aztertzea. Horrez gain, herritarren edozein zalantza argitzeko ere prest izango da.

Atez atekoa ezartzeko alderdi tekniko guztiak ebazten direnean, Sasietako Mankomunitateak sistema martxan jartzeko materialak eskatuko ditu. Jarraian, teknikariak materialak banatuko ditu etxez etxe, eta zalantzak dituenari, azalpenak emango dizkio. Horrez guztiaz gain, sistema martxan jarri aurretik, bilketa egutegia nahiz ordutegia eta zer nora bota behar den adierazten duen gida etxe guztietara banatuko dira. Oraindik data zehaztu gabe badago ere, hondakinen gaikako bilketarako sistema berria apiril-rako martxan izatea aurreikusten da. ■






## 16. Ibilbidea

# Mandubia-Mandubia (PR-GI-55)

**Iraupena: 2 ordu eta 50'**  
**Ibilbidea:**  
**Mandubia-San Gregorio ermita: 20'**  
**Ermita-Herripinudi: 45'**  
**Herripinudi- Garin: 60'**  
**Garin-Astigarreta: 35'**  
**Astigarreta-Mandubia: 10'**



**Deskribapena:** Jatetxearen atzean, gorantz ekialdera doan bideari jarraituko diogu (arrasto zuri-hori-zuriak), eta Trikuaitziko tumuluetara iritsiko gara. Antxitxurdiko muinoa hegoaldetik inguratuko dugu, San Gregorio ermitara iristeko. Puntu horretan, arrasto zuri-gorriak jarraituko ditugu, ezkerreko bidea hartuz eta goraka jarraituz. Otegi baserriaren ondotik igaro, eta mendi hegalarren erdi aldetik, Larrartera leporaino igoko gara. Abeltzaintzarako erabili ohi den borda bat dago bertan. Aurrera zuzen jarraitu, eta malda gogor samar bati aurre egin ondoren, Herripinudiko lepora iritsiko gara. Eizeta eta

Arrapaitz mendien artean kokaturik dago. Hemen, eskuinera eta aldapa beheara, Usurbe mendirantz abiatuko gara. Handik gutxira, jaitziera labur bat amaitzearekin batera, pista bat aurkituko dugu ezkerretara. Pista hori loiagatik barrena Itsasondora doa. Daramagun norabideari jarraituta, Mallutzeko lepoa inguratu eta ezkerretara utzi ondoren, Mallutz eta Zormendiko gainak topatuko ditugu.

Gune horretan eskuinera egin, eta etengabeko jaitzieraren ondoren, Garingo auzora helduko gara. Han errepidea eskuinera hartuko dugu Mandubiraino. ■



01 Mandubiko Benta



02 Trikuaitz 1 tumulua



03 San Gregorioko ermita



04 Pagorriaga



05 Larrartera bidean



06 Larrarte trikuharria



07 Larrarte baserria



08 Herripinudi



09 Garingo eliza



Astigarretako sarrera 10





## ADSL edo zuntz optikoa?

*Gaur egun abiadura handiko internet sareak zuntz optikoaren bidez izango dira*

Jende gehienak ADSL esaten dio Interneteko konexioari, ohiko sareek edota operadore gehienek saltzen duten Interneteko konexio mota baita.

Baina ez dira gauza bera ADSL eta zuntz optikoa. ADSLk telefonoaren sarea erabiltzen du, eta bestea, berriz, sare berezi baten bidez doa. ADSLk telefono sareko inpulso elektrikoak (kobrea) erabiltzen ditu, eta zuntz optikoak, berriz, argi izpiak erabiltzen ditu seinale bezala.

Zein da hoberena? Erantzun zaila du galdera horrek. Bakoitzak bere exijentziaren arabera sare bat edo beste aukeratu behar du.

Berez, zuntz optikoak askoz abiadura handiagoa du datuak transmititzeko, ADSLrekin konparatuta. Seinalea egonkorragoa da, eta (topologiaren arabera, eta Interneten ibiltzeko ekipoaren arabera) abiadura erreala da. Baina daukan eragozpen bakarra da etxebizitza zaharretan instalazioa egin behar dela. Etxebizitza berrietan, berriz, zuntz optikoarentzako instalazioa eta kanalizazioa eginda daude legez.

ADSL zuntz optikoa baino merkeagoa da, baina abiadura mugatuagoa du. Inoiz ez da abiadura erreala izango, zeren eta ADSL seinalea galdu egiten da telefoniako sarean. Hau da, gure etxea telefoniako zentralitatik oso urruti baldin badago, ADSLren seinalea txikitzen joaten da. Horregatik, ADSLren abiadura aipatzean, ez da esaten zenbateko abiadura erreala duen, baizik eta gehieneko abiadura XMB dela. Hori dela eta, pertsona batek 20MBko ADSL bat eduki dezake, baina errealitatean 9MB iritsi. Hori ez da gertatzen zuntz optikoarekin. Asko jota, abiaduraren % 90 ziurtatzen da zuntz optikoarekin.

Zer gauzetan nabaritzen da alde handiena bi teknologia horien artean? Gehienbat web-orriak irekitzeko garaian. Zuntz optikoarekin, web-orriak oso azkar kargatzen

dira. Deskarga zuzenean ere nabaritzen da aldea, abiadura azkarragoa baita eta seinalea egonkorragoa.

ADSL ez da hain egonkorra, momentu batzuetan gorabeherak eduki ditzakegu gure seinalean. Gorabehera horiek web-orri baten karga edo deskargaren abiadura motel dezakete.

Jokoetan ere asko nabaritzen da, eta bereziki on-line jokoetan. Zuntz optikoa duen pertsona batek abantaila izango du ADSL duen pertsona baten kontra. 2. munduko gerratean kokatutako joko batean, tiro egiteko garaian, zuntz optikoa erabiltzen duen jokalaria batek lehenago erreakziona dezake ADSL erabiltzen duenak baino. Mikrosegundo batzuk dira, baina nahiz eta gutxi irudit, nabaritzen da.

Gainera, zuntz optikoaren bidez, telebista seinalea bidal daiteke. ADSLtik ere bidal daiteke, baina ADSLtik telebista ikusten baldin badugu (eman dezagun 7MB iristen zaizkigula) 7tik 6MB telebistak jango ditu, eta 1MB geratuko zaizkigu nabigatzeko.

Hori ez da gertatzen zuntz optikoarekin, bi seinaleak bidaltzea bateragarria baita.

Zoritxarrez, Itsasondon ez dago zuntz optikorik oraindik. Espero dugu etorkizunean (Internet gustatzen zaigunontzat) aukera hori edukitzea. Orain arte ADSL bakarrik dugu, eta 3/6MB arteko abiadura izango dugu gutxi gorabehera herrian. Antza denez, Telefonica zuntz optikoa ari da sartzen Euskal Herrian. Ordizian badirudi hasi direla sartzen. Euskal Herrian zuntz optikoari dagokionez arrakasta handiena duen konpainia Euskaltel da.

Niri, egian esan, berdin dit zer konpainiarekin ibili. Baina egia da, gaur egungo aurrerapenak ikusita, zuntz optikoa dela aukerarik onena, gutxi gorabehera 10 urte baitaramatzagu Interneteko abiaduran inongo aldaketarik gabe.■

## Itsasondoko herri-inguruko baratzeen I. lehiaketa

*Urriaren 22an, "Itsasondoko herri-inguruko baratzeen I. lehiaketa" egin zen. Horretarako, nekazaritza ekologikoaren arloan adituak diren pertsonaz osatutako talde batek herri-inguruko baratzeak bisitatu eta puntuatu zituen, hainbat irizpide kontuan hartuta.*

Irizpide ugari erabili zituzten, eta batzuek positiboki eta besteek negatiboki eragin zuten baratzeen bukaerako balorazioan. Positiboki baloratutako ezaugarrien artean: barazkien barietate altua, hazitokia izatea, landare aromatikoaren presentzia, konposta egitea, uraren aprobetxamendu egokia... azken finean, baliabide naturalak era egokian aprobetxatzea. Negatiboki baloratutakoak, berriz, plastikoak, bidioiak eta orokorrean material artifizialak bistan izatea. Azkenik, baratzearen itxura orokorra ere kontuan izan zen, udazkenean gaudela ahaztu gabe.

Azaldu nahi da herri-gunetik ikusten diren baratzeak izan zirela kontuan lehiaketan; hau da, baratzea bisitatzeko jabetza pribatuan sartzea eskatzen ez zutenak.

Horrenbestez, sari banaketa abenduaren 12an egin zen, eta lehiaketako garaileak Ramon Elustondo eta Gregorio Lizarralde izan ziren, Ermentari etxeko baratzeagatik. Bigarren postua Jesus Aranak eskuratu zuen, Iturbe etxean duen baratzeagatik. Irabazleak sari hau eskuratu du: 2 pertsonarentzako afaria Nautico edo Kaxintane tabernan eta bertako produktuen saski bat. Bigarren postuan geratu denari ere 2 pertsonarentzako afaria oparitu zaio Nautico edo Kaxintane tabernan.

Azpimarratzekoa da Itsasondoko herri-inguruan zenbat baratze dauden; izan ere, 35etik gora izan dira zenbatutakoak. Horrez gain, txalotzekoak dira etxe aldamenean baratze txiki zein handiak zaintzen eta mantentzen dituztenak; izan ere, geroz eta jende gutxiagok jarraitzen du aurrera naturarekin zuzenean lotzen gaituen lan horrekin.



Ramon Elustondo, Gregorio Lizarralde, Axier Garro eta Jexus Arana



Baratza ekologikoaren inguruko ikastaroa

Bestalde, abenduaren 14an eta 15ean baratze ekologikoaren inguruko ikastaro teoriko-praktikoa egin zen Itsasondon. Ikastaro horren bitartez, baratze zein elikadura osasuntsua izan, naturarekiko harremana handitu eta aurrezteko bidea ere suposatzen dezaketen praktikak ikasi ahal izan genituen.

Ekimen hori lehenengo aldiz egin da Itsasondon, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak garapen iraunkorra sustatzeko ekintzetarako urtero eskaintzen dituen diru-laguntzei esker.■







## Gaztain jana, patinaje ikastaroa

*Guraso elkarteak beste ekintza batzuen artean, gaztain jana eta patinaje ikastaroa nagusi izan dira.*

**3**:30ean bildu ginen 20 bat lagun eskola atarian, urtero bezala, gaztainak biltzera joateko, horretarako garai egokia baita.

Lehenengo, buelta txiki bat egiteko asmoa genuen, baina txori txiki batek esan zigun Urkiako bidean zeudela gaztaina onak, eta, gogotsu geundenez, harantz joatea erabaki genuen.

Hala izan zen! Batzuk txiki xamarrek ziren, baina handiak ere topatu genituen. Poltsetan sartu eta bueltako bidean jarri ginen ilundu baino lehen, lan ona egindako irudipenarekin.

Bertan zegoen lan eta lan gaztainak erretzen eta pintxoak prestatzen koadrila ederra!

Iritsi bezain pronto, euria hasi zuen, baina, aterpean geundenez, gaztainak jaten hasi ginen. Bueno, gaztainak, txorixo pintxoak.... Haiek ziren puzkarrak bertaratu artean! Gau hartan etxeak goxo-goxo egon ziren.

Eskerrik asko lanean ibilitako guztiei!

Hurrengo urtean ere bilduko gara gaztainak jateko! ■



**U**rriaren 30ean hasi ginen patinatzen ikasten guraso eta haur batzuk. Gutxi gorabehera 30 bat lagun elkartzen gara, batez beste.

Aspaldian baginen guraso batzuk patinatzen ikasteko gogoarekin. Horregatik, gure irakasle Olaiz animatu zenean, hitza hartu eta patinak lortzeari ekin genion. Arriskuak ez ziren gutxi, baina kaskoak buruan jarri eta aurrera ekin genion frontoian atzera eta aurrera buelta batzuk ematera.

Animatuenek eta agian abilenek ere bai, asteburuetan Legorreta arte iristea lortu dute. Beste batzuk, aldiz, poz-pozik gaude Berostegira joanda.

Halere, dudarik gabe, gure arteko giroa izan da hoberena.

Aupa Itsasondoko patinatzaileak! ■



## Itsasondoko XIII. Ziklo-krosa

**A**benduaren 8rako jarri genion hitzordua Itsasondoko ziklokrosari. Aurten Superprestigio txapelketarako puntuagarria izan da; hau da, Estatuan egiten den txapelketa garrantzitsuenarako puntuagarria.

Eguraldiak asko lagundu ez bazigun ere, eskertzekoa izan zen ia 300 parte-hartzaile izatea, 5 lasterketak kontuan izanda. Eskerrak, baita ere, eguraldi txarrari aurre eginez, antolakuntzan, bidegurutzeak zaintzen, autoak aparkatzen, ibilbidea jasotzen... lagundu zenuten guztioi! Mila esker! Zuek gabe ezingo litzateke lasterketarik antolatu!

Lasterketei dagokienez, elite mailan, lasterketa nagusia Egoitz Murgoitio izan genuen garailea. Azkeneko bi itzulietara arte lehia estuan ibili zen Aitor Hernandezekin. Javier Ruiz de Larrinaga izan zen hirugarren. Laugarren, berriz, Isaac Suarez Espainiako txapelduna izan genuen.

Aipatzekoa da, baita ere, jubenilen mailan Alex Aranburu ezkiotarra izan genuela garailea. Lasterketa horretan zorte handirik eduki ez zuen arren, Eriko Mujika herriarrak ere hartu zuen parte.

Aipatzekoa eta antolakuntzatik eskertzekoa da ziklokrosak eskaini digun beste sorpresetariko bat: Jokin Mujika berriro ere bizikleta gainean jarri eta herriarren aurrean lehiatzea. Gainera, oso lasterketa polita egin zuen, eta bigarren postua lortu zuen master-50 kategorian. Herrian inoiz ziklokrosik korritu gabe zegoen, etxeko zelaietan txirindulariak ikusi... eta arantza hori ateratzea lortu du... Eskerrik asko Jokin!

Antolakuntzak urtero babesleei eta laguntzaileei egiten dien omenaldia aurten Ixio Barandiarani egin genion.

Besterik gabe, ziklokrosak sortu dituen eragozpenak, trafikoa, zarata, lokatza... ulertuko dituzuelakoan agurtzen gara. ■





## Euskararen eguna



## Kantu afaria

Azaroaren 30ean, ostiralean, Arbelaitz Elkartetik janari goxoaren usaina dator, eta biolin eta eskusoinu doinuek neguko gaueko isiltasuna hausten dute. Pixkanaka, lagun taldea elkar-terera gerturatzen doa; giro eta umore ona nabari dira.

Afaria, betiko moduan, ezin hobea. Beste behin ere, lker eta bere lagun koadrilari eskerrak eman beharrean gara; ardogilea ere ez da makala, mahats ale soiletik horrelako zuku goxoa egitea ere...

Eta afalostean biolin, eskusoinu eta eztarri urratuak, euskal kanta esanguratsueni errepaso eginez: batzuk doinu eta soinu; beste batzuk, aldiz, aiene eta oihu; baina, denok batera kantu eta kantu. Gaua ez da berehala amaitu; beldur gara bizilagunak ez ote diren gogaitu; datorren urtean, espero dugu lagun giro ederrean gaitezen elkartu.

Abenduaren 3a, euskararen eguna  
“GAZTA ZATI BAT” dokumentalaren emanaldia

Urteroko ohiturari jarraiki, abenduko lehen astean, Itsasondoko Udalak kultura batzordearekin elkarlanean, ekintzaz beteriko Euskararen astea antolatu du: kantu afaria, talo festa eta abenduaren 3an, euskararen eguna. Goizean, eskolako haurrak herrian zehar dantzari ibili ziren, eta plazan emanaldia egin zuten guztiek batera. Ondoren, berriz, txikientzako antzerkia izan zen eskolako aterpean, eta arratsaldean, neguko giro hotzeko arratsaldea musikaz alaitzen saiatu ziren herriko trikitilariak, egunari amaiera ona eman nahian. Gaztelekuan, “Gazta Zati Bat” dokumentalaz gozatzeko aukera izan genuen bertaratu ginen herritarrok.

Idiazabalgo “Nazioen Mundua” herri ekimenak duela urte batzuk hasitako lanaren fruitua izan da dokumental hau, Jon Maiak zuzendu eta ekoiztu duena. Dokumental honetan, herri ekimen honek Euskal Herriaren erabakitze eskubidearen alde burutu dituen ekintza ugari laburbiltzen dira, Eskozian ematen ari den autodeterminazio prozesuarekin parekotasun bat bilatu nahian. Aldi berean, Euskal Herrian azken urte honetan bizi izan dugun aldaketa sozio-politikoa argi eta garbi islatzen du dokumental honek, eta besteak beste, ETA erakundearen jarduera armatuaren behin betiko etena, Igartza eta Aieteko adierazpenak... bezalako albisteak ongi azaltzen ditu dokumentalak. Esan liteke, Euskal Herriko historiaren estereotipoetatik eta kazetaritza kroniketarik haratago, giza baloreak sakondu nahi izan direla “Gazta Zati Bat” dokumentalean, eta baita lortu ere!!

Dokumentala hasi aurretik, “Nazioen Munduko” ordezkariak dokumentalaren kronika moduko bat egin zuten, eta besteak beste, 1931ko apirilaren 18an, Itsasondoko Udalbatzak aho batez onartu zuen autodeterminazioaren aldeko mozioa eta 80 urte geroago gure herrian egin zen elkarretartzea, nahiz Itsasondon mozioa onartu zuten alkate eta zinegotzi haien sendiei egindako omenaldiak ere hizketagai izan zituzten.

Dokumentala amaitu eta bertaratutako herritarrok dokumentalari buruzko balorazioa egin ostean, “Nazioen Mundua” ekimeneko materiala eskuratzeko aukera zabala ere izan genuen Gaztelekuan jarri zuten salmenta-postuan.

## Talo ikastaroa • Talo jana 2012



Urte dezente pasa dira jada Itsasondoko Udala abenduko aste kulturalaren barruan Errota pilotalekuan Talo Festa antolatzen hasi zenetik. Ekimen horren hastapenetan, herriko jubilatutako drila sendo bat arduratzen zen ur beroaz eta artirinaz orein eta suak kiskalitako txaparen beroaz probesturik, taloak puztu-puztu egin eta talo horiek txorixo, gazta, urdai edo txokolatez hornitzeaz. Ilara luzeak itxaron behar izaten genituen, gure kulturaren parte diren elikagai goxo horiek dastatu ahal izateko.

Urteak aurrera joan ahala, ordea, txapa beroaren inguruan eserita zapla-zapla talo-egurren kontra artirinezko ore pusketari forma zapal hori emateaz arduratzen ziren emakumeen kopurua txikituz joan zaigu. Egoera horretaz jabeturik, eta arazoari aurre egiteko asmoz, Itsasondoko Udalak talo-ikastaroa antolatu du aurten Bizi Nahi jubilatutako elkartean. Benetan arrakastatsua izan dela azpimarratu behar da, 25 bat herritarrek hartu baitute parte ikastaroan.

Rosario eta Dolores Arza, Tomaxenekok Mattere eta Urkia auzokok Mattere izan dira irakasleak. Lehen egunean, orein behar bezala egiteko argibideak eman zizkiguten, eskuak erretzeraino ura berotu eta artirinari gatz pixka bat bota ondoren eskuekin behin eta berriz nahastu zizkiguten hiru osagai horiek, orein puntuan utzi arte. Ondoren, ikasle bakoitzak ore pilota bat hartu, eta norberak bere talo-egurren aurka eskuekin kolpeak emanez, ahaleginak egin behar izan genituen orein egurrera ez itsasteko. Talo egurrera artirin pixka bat botatzean omen datza sekretua!!! Behin taloei forma eman ostean, txapa beroaren gainera taloak bota eta Urkiko Mattere arduratu zen gainontzekoaz. Eguna ondo amaitzeko, guk eginiko taloak txorixo eta txokolate pusketarekin dastatzeko aukera ere ez zitzaigun falta izan. Gainontzeko bi egunetan, berriz, orein ikasleok egin genuen, eta ikastaroko azken egunean ere txapa beroaren ardura gutako ikasle batena izan zen, betiere gure lau irakasle zorrotzen begiradapean.

Pasa berri den abenduaren 1ean, aurtengo Talo Festa ospatu genuen. Talo ikastaroan parte hartu genuen ikasle asko bertaratu ginen pilotalekura, ikastaroan ikasitakoaz probesturik hasierako jubilatutako taldeari erreleboa eman eta herritarrei banatu beharreko taloak egiteko asmoz. Gure lau irakasle finen gidaritzapean, aurreko urteetan baino gutxiago itxaron behar izan zuten itsasondoko taloak eskuratu ahal izateko. Talo Festa girotzeko asmoz, herriko trikitilariak ere jo eta su aritu ziren lanean

ekitaldiari trikiti doinuekin festa kutsua eman nahian. Pilotalekuan giro polita sortu zela esan dezakegu, eta bertaratutako jendeak talo goxogoxoak dastatzeko aukera izan zuen. Guztira 250 talo inguru saldu ziren aurtengo honetan.

Egunari amaiera emateko, aurten irakasle lanean aritu diren emakumei urteetako lana eskertu eta eurentzako omenaldi xume bat egin nahian, herriko Mikel Mendizabal bertsolariak eginiko bertsoa kantatu zieten eskolako haurrek plazara bildutako herritarren aurrean. Azkenik, eta orogarri gisa Mikelen bertsoa serigrafiatuta zeraman talo-egur bana eman genien gure lau irakasleei.

Gure esker ona, baita ere, urteetan zehar taloak egiteaz arduratu diren gainontzeko jubilatuei. Zuek gabe ez litzatekeelako posible izango ohitura zahar horri bizirik eustea, eta urtero-urtero Itsasondon talo goxoak dastatzeko aukera izatea.





## Itsasondoko XV. mendikleta trabesia



Euriari aurre egitera animatu ginen 36 parte-hartzaile ausart irten ginen XV. trabesian. Eguraldi txarra izan arren, giro ederrean eta umoretsu ibili ziren parte-hartzaileak 29 kilometroetan zehar.

Eskertu ljittu kirol elkartetik bidegurutzetan egon zaretenoi, janari- eta edari-postuetan egon zaretenoi, merienda prestatu eta zerbitzatu duzuen guztioi eta, era batean, antolakuntzan lagundu duzuen guztioi.

Hurrengo urterako ea herritar gehiago animatzen zareten trabesian ateratzen.



## Arbel-aitz elkarteko 50. urteurreneko bazkaria



Apirilaren 12an, 50 urte bete ziren Arbel-Aitz elkartearen ireki zela. Hori dela eta, azaroaren 18an, elkartearen bazkari bat antolatu zen, urteurrena ospatzeko eta gure artean dauden bazkide sortzaileei omenaldi xume bat egiteko.

Bazkaria 14:30 aldera hasi zen. Menua honako hau izan zen: hasierako hotzak eta beroak (urdaiazpikoa, pateak eta gula nahaskia); ondoren, kokotxak salta berdean; eta, plater nagusi bezala, azpizuna, piper gorri eta patata purez lagundurik. Postrea: izozkia, Tolosako zigarrilloekin eta trufekin.

Bapo bazkaldu ondoren, kafe garaian txapel bat eman zitzaion bazkide sortzaileei. Bazkide omenduak honako hauek izan ziren: Manuel Garmendia, Sotero Kalleja eta Axintxio Iturrioz. Joxe Otegi eta Inaxio Arbilla ere gogoratu ziren, ezin izan baitziren etorri. Hala ere, bazkide batek gogoratu zuen ez zeudela denak, Manuel Gorospe ere bazkide sortzailea izan zela eta ez zitzaizola gonbidatu. Zuzendaritza batzordeak lerro hauek erabili nahi ditu akatsarengatik barkamena eskatzeko.

Omenalditxoa amaitu ondoren, bazkalostea trikitixaren musikarekin alaitu zen. Egun paregabea pasatu zuten bertaratu ziren guztiek. Ea Arbel-Aitz elkarteak beste 50 urte betetzen dituen.



( lorezaintza gomendioak )

## Clivia miniata

Clivia espeziea Hegoafrikakoa da berez. Garai batean, asko zabaldu zen hemen, eta gaur egun oso ondo geratzen da dekorazio modernoetarako. 50 cm-ko luzera izan dezake. Hosto zapal eta lodiak ditu, erraz antzemateko moduko kolore berde ilunekoak. Laranja-koloreko lore handiak ateratzen zaizkio, negu amaieran edo udaberri hasieran. Loraldiaren ondoren, baia berdeak ematen ditu. Baiak heldu ahala, gorritu egiten dira, eta gorri-gorri egoten dira neguan zehar. Hala ere, garrantzitsua da baia horiek kentzea, landareak indarrik ez galtzeko, eta hurrengo urtean ere loreak emango dituela ziurtatzeko.

Clivia oso landare iraunkorra da, eta ez da zaila haztea, apur bat zaintzen bada.

**Argia:** Argitasun handiko tokian edukitzea komeni da, baina ez eguzkitan, baizik eta itzalean. Behar beste argi iristen ez bazaio, baliteke lorerik ez ematea.

**Temperatura:** Negu hasieran deskantsua hartzen duenean, freskuran eduki behar da, 7-10 graduan. Tenperatura 15 gradura igo behar da, lore-begiak ateratzen zaizkionean. Udan, 20-23 graduan eduki behar da gehienez.

**Ura:** Lehor samar edukitzea komeni da. 15 egunean behin ureztatu behar da deskantsuko garaian, eta astean behin, loratzean eta hazten ari den bitartean.

**Ongarriak:** Ongarri pixka bat botatzea komeni da, astean behin, hazten ari den bitartean.

**Loreontziz aldatzea:** Landarea gaztea denean, urtero aldatu behar da ontziz, udaberrian. Heltzean, berriz, hobe da ontziz ez aldatzea, eta gainazaleko geruza 2-3 urtean behin aldatzea. Altsamak emateari uzten dienean aldatu behar da.

Substratu arinak erabili behar dira, sustraletan putzurik ez sortzeko.

Loreontzia aldatzean, kontuz ibili behar da sustrai mami-tsuei kalte ez egiteko. Ez da erabili behar loreontzi handiegirik, bestela ez baita hasiko loreak ematen, harik eta sustraiak berriz trinkotzen zaizkion arte.

**Garbiketa:** Komeni da tarteka hostoetako hautsa kentzea, zapi busti bat erabiliz. Ez da distira-emailerik erabili behar, kalte egiten baitiote landare honi.



**Maixabel Garmendia**  
Izadia Loradenda. BEASAIN  
943 88 14 40



( errezeta )

## Barazki hostopila, ahuntz gaztarekin eta trufazko olioarekin

**Osagaiak:**

- 2 xerra berenjena
- 2 xerra kalabazin
- 3 xerra tomate
- 3 perretxiko
- Porru erdi bat
- 2 xerra sagar
- Trufa 1/4
- 50 gr ahuntz gazta

**Prestakuntza:**

Barazkiei gatza bota, eta labean sartuko ditugu.

Trufari oliba olio birjina bota, eta tourmixaz irabiaturiko dugu.

Barazki guztiak bata bestearen gainean jarri, eta ahuntz gazta jarriko diogu gainean.

Barazkiak labean edukiko ditugu, gazta gainerre arte.

Azenario tira batzuk arraspatuko ditugu (azala kentzeko tresna batez), irineztatu eta frijitu egingo ditugu, azenario kurruskariak lortu arte. Platera dekoratzeko erabiliko ditugu.

Baratzeko produktu ekologikoak erabiltzea gomendatzen dugu.

Plater hori beste barazki batzuekin edo perretxikoekin egin daiteke.



**Axier Arbilla**  
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL  
www.arbeletxe.com  
973 361 634



## Oharra



### Itsasondoko haurreskola geroz eta hutsago

Haurreskola ireki denetik Itsasondon (2005ean), bigarren aldia izango da haurreskola hain hutsik dagoela eta ixteko arriskuan dagoela. Izan ere, urte oparoak izan baditu ere, eta haurreskola umez gainezka egon bada ere, aurtan hiru haurrekin hasi da ikasturtea eta bostekin bukatzea aurreikusten da. Horren ondorioz, haurreskolaren ordutegia murriztu egin da, partzuergoko legeek agintzen duten bezala, eta haur gehiago matrikulatu arte ordutegi berdinak segituko du. Horrek, guraso asko atzera bota ditu, haurreskolak ez baitzuen beraien beharra betetzen, eta horregatik, ondoko herriko haurreskola batzuetara eramatea eragin du. Hori ikusita, partzuergoari ordutegia zabaltzeko eskaera ere egin zitzaion, horrela bakarrik lortuko baitzen haur gehiago matrikulatzea Itsasondoko haurreskolan, baina partzuergoaren erantzuna ezezkua izan zen.

Krisi ekonomiko honek ere eragin handia izan du; haurreskolan ere asko antzeman da. Gurasoetako bat etxean gelditu bada, haurra ere etxean gelditzen da normalean. Beraz, kurtsoa nahiz eta bost haurrekin bukatu, hurrengo bi haurrekin hasiko dela aurreikusten da, eta partzuergoko lege-

en arabera, minimoa hiru haur izaten dira haurreskola ireki nahi bada. Hauxe da Itsasondoko haurreskolak duen egoera momentu honetan. Haur jaioberri bat beharko litzateke matrikulatzea, hurrengo kurtsoan ere haurreskola zabalik mantentzeko.

Argi ikusi da azken urte hauetan haurreskolak izan duen garapena. Itsasondoko jaioberrien kopurua ere jaisten ari denez, haurreskola ere geroz eta hutsago geratzen ari da. Urte batzuetan, Ordiziatik haur dexente etorri izan dira, hango haurtzaindegian lekuri ez zutelako, baina hori ere aldatu egin da aurtan, han ere toki libreza izan dute (krisiaren eraginez beraien ustetan ere). Hauxe da daukagun errealitatea.

Hori dela eta, haurreskolak kanpaina berri bat hasiko du eta ateak irekita izango ditu, urtarilaren 2an, 3an eta 4an, nahi duen guraso oro hartzeko eta gure funtzionamendua eta egunerokotasuna ezagutzeko, zuen kezak eta dudak argitzeko. Haurreskola zabalik dagoen edozein momentuan etorri lasai ikustera (08:30etik 13:00etara, dauden haurren loaldia dela eta 13:00ak arte). Beraz, animatu zaitezte eta etorri gu hobeto eza-gutzero!



## Kultur Agenda

### Otsaila

2 Ijito eguna  
4 Santa ageda bezperako eskea

### Martxoa

8 Emakumeen nazioarteko eguna  
14 Korrika  
15 Korrika txikia eta korrika kulturala  
**Martxoan** hasita, eskulan tailerra asteazkenetan, 14:45etik 16:45era.



**Itsasondotik**  
**Autobus bat baietz!**  
Apuntatzeko Kaxintanen.

## Telefono interesgarriak



Udaletxea 943 881170

- Gizarte Langilea
- Udal Arkitektoa
- Epaitegia

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkartea 943 881339

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

## itsasondo.e.o

Herriko Aldizkaria ((19. zk.)) Abendua-Martxoa 2013

### Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Arantzazu Muñoa  
Aranzadi Elkartea  
Axier Arbilla  
Axier Bazaga  
Belen Mendizabal  
Beñi Agirre  
Danel Etxeberria  
Ekaitz Arruti  
Enma Arrondo  
Eskolako haurrak  
Erkuden Mendizabal  
Haurreskolako Hezitzaileak  
Gorka Telleria  
Iker Mendizabal  
Iker Uson  
Iturritxiki Guraso Elkartea  
Jose Luis Aranburu  
Maite Lasa  
Maixabel Garmendia  
Mikel Mendizabal  
Miren Aburuza  
Rosi Noguera  
Unai Agirre

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreo edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70  
itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: SS-297-2010 ISSN: 2171-5572



**GOGORARAZTEN DIZUEGU**  
**HURRENGO ALEA**  
**MARTXOAN IZANGO**  
**DUZUTELA ETXEAN**

Paper birziklatuan egina